

**SEXU- ETA GENERO-
ANIZTASUNETIK
ESKUBIDE SEXUAL ETA
EZ-NORMATIBOAK
ERAIKITZEN**

ALDARTE 2019

SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNETIK ESKUBIDE SEXUAL EZ-NORMATIBOAK ERAIKITZEN

UNITATE DIDAKTIKOAREN AURKEZPENA

Unitate didaktiko honek SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNETIK ESKUBIDE SEXUAL EZ-NORMATIBOAK ERAIKITZEN liburu grafikoan egindako lana osatzen du eta MENDE HONETAN KOKATUTAKO ESKUBIDE SEXUALAK: SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNETIK ESKUBIDE SEXUALAK BERRIRAKURTZEN proiektuaren **baitan kokatzen da**.

Testuinguruak eraldatzen ari direnez, horietara moldatzeko, sexu-eskubideen inguruko begirada osatzen joan behar dugu. Lan honen bitartez, hainbat baliabide eskaini nahi izan ditugu hausnarketa berritzaileak bultzatzeko.

Aurkezten dugun lan honek **asmo argi bat** du: LGTBI+ kolektiboan, jendartean eta hezkuntza eremuan sexu-eskubideak lantzea. Era berean, sexualitate ez-normatiboekin lotutako eskubideak ezagutarazi nahi ditu; hori dela eta, hausnarketa bideratu dezaketen erremintak eskaintzen ditu. Giza Eskubideen defentsa ahalbidetuko duen ulermen osatuago bat lortzeko, sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspuntu eguneratu bat eskaini nahi izan dugu.

Material hau 11 fitxek osatzen dute, eskubide bakoitzeko fitxa bat. **Proposamen metodologiko** hau iradokizun bat besterik ez da. Fitxak dinamika jakin batzuekin, galderekin eta lagungarria izan daitekeen materialarekin osatuak daude; horiek beste dinamika batzuegatik osatuak edota ordezkatuak izan daitezke.

IDEIA ETA KOORDINAZIOA:



Berastegi, 5-5º Bilbo 48001

Tel. 944237296 - 665 73 44 28

www.aldarte.org

<https://kooperaldarte.org/eus/>



@AldarteOrg



Aldarte Zentroa-Centro

DATA: 2019ko ekaina

ARGITARATZAILEA: ALDARTE

LAGUNTZAILEA:



SEXU ESKUBIDE BAKOITZA LANTZEKO IRIZPIDEAK

1. Fitxa. Askatasun sexuala izateko eskubidea:



| DEFINIZIOA | HELBURUAK |
|---|--|
| <p>Pertsonok euren desirak eta generoak askatasunez adierazteko aukera izatea da.</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Pertsonok ditugun genero/ desira/ nortasun anitzen inguruan hitz egitea. • Eskubide hau gauzatzeko dauden zailtasunen inguruko hausnarketa egitea. Zer ari da gertatzen munduko hainbat txokotan? |

EDUKIAK / DINAMIKAK

Irudi honek zer adierazi nahi du?

Dokumentala ikusi:

- *OSGI garroto-delituei begirada orokorra* dokumentala. ALDARTE. (2019). https://www.youtube.com/watch?v=8e5J9f_rQzI
- ❖ *Brain storming / Posticken trenarekin:* Atentzio gehien eman dizuten alderdien inguruko hausnarketa kolektiboa egin eta azaldu zergatik.
- ❖ Ezagutzen al duzue egoerarik edo lekurik non eskubide hau gauzatzea ezinezkoa den?

IRUDIA



MATERIAL EUSKARRIA

Migrazio koadernoak:

<http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/inmigracioneusk.pdf>

2. Gorputzaren autonomia eta segurtasun sexualerako eskubidea:



| DEFINIZIOA | HELBURUAK |
|---|---|
| <p>Geure gorputzaren, desiren edota generoaren gaineko erabaki autonomoak hartzeko ahalmena da.</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Gorputz osoa plazer iturria dela lantzea. • Plazera genitalatik haratago dagoela ulertaraztea. |

EDUKIAK / DINAMIKAK

Zer ikusten duzu irudian?

- ❖ Ezaguna egiten al zaizu errealitate hau? Gure iruditegi kolektiboan dago aniztasuna funtzionala duten pertsonen sexualitatea?
- ❖ *Yes we fuck* ikusi ostean, praktika sexual hegemonikoen inguruko eztabaida bultzatu. Nolako errealitatearekin aurkitzen dira aniztasun funtzionala duten pertsonak harreman sexualak izaterako orduan?

IRUDIA



Pelikula – Dokumentala:

- *Yes we fuck*:
<http://www.yeswefuck.org/>
<https://vimeo.com/yeswefuck>

MATERIAL EUSKARRIA

Lesbianak legez eta bidez ikerketa:

<http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/LESBIANAKLEGEZETABIDEZ.pdf>

4. Parekidetasun sexuilerako eskubidea:



| DEFINIZIOA | HELBURUAK |
|---|--|
| <p>Praktika sexual onen eta txarren arteko balioespena egiterako orduan, pertsonok ditugun hierarkia guztien hausturen eta diskriminazio ezaren inguruan dihardu.</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Sexuaren inguruan ditugun balore-iritziak zalantzan jartzea. • Pertsona guztiek ea eskubide hau burutu dezaketzen pentsatzea. |

EDUKIAK / DINAMIKA

Zer datorkizu burura irudia ikustean?

- ❖ Gaur egun, sexu praktika ezberdinen inguruko aurreiritziak ba al daude?
- ❖ **Semaforoaren dinamikaz** *baliatuta*, galderak egitean datza. Parte hartzaileek alde edo kontrako iritzia azalduko dute eta eztabaida sortuko da.
 - Prostituzioa vs asistentzia sexuala, desberdintasunik ba al dago?
 - Sexu ona vs sexu txarra: kategoria edota mailaketa hori egiten al da?

IRUDIA




MATERIAL EUSKARRIA

Lanketa egin:

- Irudia: sexu ona edo txarraren zirkulua → (Gayle Rubin. 1989:19)
- Irudia: hormak → (Gayle Rubin. 1989:20).

Liburua: *Reflexionando sobre sexo: Unas notas para una teoría radical de la sexualidad.*

<https://distribuidorapeligrosidadsocial.files.wordpress.com/2011/11/zine-gayle-rubin1.pdf>



5. Plazer sexualerako eskubidea:



| DEFINIZIOA | HELBURUA |
|---|---|
| <p>Nahi den moduan, lekuan, zein momentutan eta nahi den edota nahi diren pertsona guztiekin.</p> | <ul style="list-style-type: none"> • LGTBI+ kolektiboan eman den bilakaera lantzea. • LGTBI+ kolektiboko testuinguru historikoaren epeei buruz eztabaidatu. |

EDUKIAK / DINAMIKAK

Zer adierazten du irudiak? Eskubidearekin bat al dator?

Luciaren istorioa:

<http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/relatoluciaesk.pdf>

Memoria historikoaren dokumentala ikusi:

<http://www.aldarte.org/es/multimedia-ver.asp?id=95>

Eztabaidatu:

- Polimaitasuna vs monogamia

IRUDIA



MATERIAL EUSKARRIA

Memoria historikoaren liburuak:

- <http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/BEGIRADAAUSARTAK.pdf>
- <http://www.aldarte.org/miradas-atrevidas/comun/pdf/LEKUKOTASUN-BERRIAK.pdf>

6. Emoziozko sexu adierazpenerako eskubidea:



| DEFINIZIOA | HELBURUAK |
|---|--|
| <p>Ekintza sexualen plazera baino gehiago da adierazpen sexuala. Pertsona bakoitzak bere sexualitatea nahi dituen afektu, kontaktu edota adierazpenen bitartez azaltzeko aukera du.</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Aniztasuna birpentsatzea. • Ikusgaitasunaren garrantzia, adierazpen bezala lantzea. |

EDUKIAK / DINAMIKAK

Zer dio irudiak?

- ❖ Pertsonon adierazteko moduen inguruan pentsatu. Nola adierazten gara?
 - Gorputzarekin, kontaktuarekin, kontaturik gabe...
 - Hurbiltasunarekin, urruntasunarekin...
 - (...)
- ❖ Afektuen, laztanen eta abarren inguruan hitz egin. Zein garrantzia dute?
- ❖ Askatasunez adierazten al gara? Adinak baldintzatzen al gaitu? Zergatik?

IRUDIA



MATERIAL EUSKARRIA

Bideoa: *Turistas*

- <http://www.aldarte.org/es/multimedia-ver.asp?id=17>

7. Sexu asoziazio askerako eskubidea:



| DEFINIZIOA | HELBURUA |
|---|---|
| <p>Asoziazio askerako eskubidea, jendarte talde batera atxikitzeko edota parte sentitzeko aukera izateko eskubidea da; hau da: ezkontzea erabakitzen duen talde bateko parte izatea edo ez erabakitzeko, norekin batzen zaren aukeratzeko edo antolatzen zaren edo ez erabakitzeko.</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Antolatzeko modu eta espazioen inguruko hausnarketa egitea. |

EDUKIAK / DINAMIKAK

Zer irudikatzen du argazki honek?

- ❖ LGTBI+ pertsonen askatasuna kontuan hartzen duen talde edo eragileren batean parte hartzen al duzu?
- ❖ LGTBI+ ikusgaitasuna kontuan hartzen duen talderik edo eragilerik ezagutzen al duzu?
- ❖ Hausnarketa: kolektibo espezifikoak vs kolektibo anitzak. Zer da bakoitza? Zein ezberdintasun dituzte?
- ❖ Besteak beste, jolasen, errezeta gastronomikoen edota ipuinen bitartez, kultura eta erlijio aniztetera hurbiltzea.

IRUDIA



MATERIAL EUSKARRIA

Miquel Misséren liburua:

- Miquel Missé. 2018. *A la conquista del cuerpo equivocado*.

8. Ugaltzeari buruzko erabakiak modu libre eta arduratsuan hartzeko eskubidea:



| DEFINIZIOA | HELBURUAK |
|---|--|
| <p>Guraso izan nahi duzun edo ez eta noiz izan nahi duzun erabakitzeko, nahiz zaintza lanak norekin partekatu nahi dituzun aukeratzeko ahalmena da.</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Sistema bitarraren inguruan hausnartzea. Emakume edo gizon izatearen pentsamendu klasikotik haratago, hainbat genero rol daudela ulertzea. • Zaintza ereduak zalantzan jartzea. |

EDUKIAK / DINAMIKAK

Zer adierazten du argazkiak?

- Amatasun lesbikoak: <http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/matereusk.pdf>
- Familia ereduak eta aldaketa sozialak: familia lesbigay eta transexualak. <http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/modelosfameusk09.pdf>

IRUDIA



MATERIAL EUSKARRIA

- *Dibujando el género* dokumentua landu Gerard Coll-Planas eta Maria Vidal (2017). http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/Dibujando%20el%20genero%20%28Coll-Planas%20y%20Vidal%29_pages-to-jpg-all_compressed.pdf



9. Ezagutza zientifikoan oinarritutako informazioa jasotzeko eskubidea:



| DEFINIZIOA | HELBURUA |
|--|---|
| <p>Jakintza “zientifikoak” diziplina anitzetan eta etikan oinarrituta egon behar du. Era berean, modu egokian hedatu behar da eta pertsoneri egokitu behar zaie.</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko jakintza hegemonikoak eta pentsamendu zientifikoak zalantzan jartzea. |

EDUKIAK / DINAMIKAK

Zer ikusten duzu argazkian?

- ❖ *Gayak eta lesbianak horrelakoak izaten jaiotzen dira* baieztapenarekin ados al zaude?
- ❖ Zerk identifikarazten dizu mutil edo neska bezala?
- ❖ Sexu- eta genero-aniztasunaren inguruko beste errealitate kulturalak ezagutzen al dituzu?

IRUDIA



MATERIAL EUSKARRIA

Muxeen inguruko informazioa:

<https://www.youtube.com/watch?v=iiek6JxYJLs>

<https://www.youtube.com/watch?v=mj2QUB6tIpQ>

Miquel Misséri elkarrizketa: *La compleja categoría “menores trans”*

https://www.youtube.com/watch?v=Qpd3GJdMN7M&list=PL3qy2ZNcrIYrziu85EwaYC_yDUTYODSpV

10. Sexu hezkuntza integralerako eskubidea:



| DEFINIZIOA | HELBURUAK |
|--|---|
| <p>Instituzio sozial guztietan, sexu eta genero aniztasunaren inguruko heziketa jasotzeko eskubidea da. Formazio horrek adinak, kulturak edota erlijioak errespetatu behar ditu.</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza esparru formalean eta ez formalean sexu- eta genero-aniztasuna aldarrikatzea. • Bullying LGTBI+fobikoari aurre egitea. |

EDUKIAK / DINAMIKAK

Zer dio irudi honek?

- ❖ Zentzu zabalean ulertuta, sexu- eta genero-aniztasuna kontuan hartzen al da zure hezkuntza eremu(et)an?
- ❖ Zure hezkuntza eremuan ba al dago LGTBI+ irakasle edo erreferenterik?
- ❖ Familia aniztasuna. Familia eredu eta eredu sozial berrien inguruan hausnartzea.

IRUDIA



MATERIAL EUSKARRIA

Bullyingaren inguruko gida:

<http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/folletotiempolibreeuskera2.pdf>

Familien inguruko micrositerako lotura:

<http://www.aldarte.org/familia/html1/default.asp>

11. Sexu osasun arretarako eskubidea:



| DEFINIZIOA | HELBURUA |
|---|--|
| <p>Pertsona orok osasun sexualerako prebentzio eta arretarako eskubidea du; hori dela eta, baliabideetara heltzeko neurriak hartu behar dira eta aukera horiek bermatu.</p> | <ul style="list-style-type: none"> Sexu osasunerako eskubide unibertsala aldarrikatu GIB-HIESA duten pertsonak, prostitutak eta LGTBI+ kolektiboko kideak estigmatizatu gabe. |

EDUKIAK / DINAMIKAK

Irudi honek zer ematen du aditzera?

- ❖ S.T.I eta GIB-HIESAren inguruan hitz egitea. Galdetegia bete: <http://www.aldarte.org/sida/site/encuesta-sida-portada.asp>
- ❖ *El vuelo del placer* bideoa: <http://www.aldarte.org/es/multimedia-ver.asp?id=67>
- ❖ BETI, sexu harreman seguruak mantentzearen garrantziaren inguruan hitz egin.

IRUDIA



MATERIAL EUSKARRIA

GIB-HIESA eta Sexu Transmisiozko Infekzioen (S.T.I) inguruko dokumentu interesgarriak: <http://www.aldarte.org/sida/site/documentosinteres.asp>

